

Joxean Muñozek «kulturaren industria propioa lantzeko artisau kontzeptuaren garaikidetasuna» aldarrikatu du Donostiako San Telmo Museoa emandako hitzaldian.

Kulturatik industriara, artisautza bide

Gorka Erostarbe Donostia

Artisauarena da kontzeptu bat ez duguna behar adina identifikatzen, eta ez duguna behar adina defenditzen eta indarrean jartzen». Joxean Muñoz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak hala iritzen dio; kontuan hartzeak ez ezik indartzeak eta baliatzeak ere badi dira artisautzaren atzean gordetzen diren balioak, eta ez soilik kultur ekosistemaren eta kultur industriaren barruan, baizik eta gizartearen beste esparruetan ere bai, baita ekonomia eta haren garapena ardatz modura duten industrian ere.

Kultur sailburuordea da Joxean Muñoz, baina baita sortzailea ere, «sorkuntza lanetan aritu izan bainaiz nire bizitzan». Atzo, bi ikuspegiak bere eginda mintzatu zen Jakiunde eta Topaketa Donostia 2016k antolatutako *Erronkak* izeneko jardunaldietan, Donostiako San Telmo Museoa. *Sortzaileak, artisauak eta industriak* goiburuko hitzaldia eman zuen. «Garbi dago gaur egungo ekonomiak eta kapitalismo finantzarioak darabilen dinamika eragotzi egiten duela artisau jarduerari, eta ez sustatu. Kontu konplexua da oso, baina sortu behar da halako harrotasun eta defentsa bat kultur artisau jardueraren inguruan».

«Ez naiz artista, sortzaile bai». Bere burua artisautzat dauka batere ere. Hala sentitu izan da idazle, zinemagile eta gidoiari lanetan aritu denean. Eta zer da Muñozentzat artisau izatea? Richard Sennet soziologo estatubatuarrek –filosofia pragmatikoaren eskolakoa da, eta 2008an *The Craftsman* (Artisaua) liburua plazaratu zuen– definituriko moldean ulertzen du: «Artisautzak lanarekiko inplikazioa eta kalitatearekiko ardura adierazten ditu, bizi-raute soilaz haratago. Lana, arti-

sauarentzat, helburua da». Eta sorkuntza lanarekiko konpromiso hori barren-barrenetik defendatzen du: «Egun oso dago boladako coach eta aditu ekonomikoaren artean dena zenbakitan neurtzeko. Galdetzen dizute: 'Zenbat denbora inbertitu duzu langintza honetan?' Zein etekin ateratzen du?». Eta ez. Kulturaren sorkuntza gabiltzak badakigu zer den lan bat bukatu arteko onik ez izatea. Eta nik hori defendatzen dut balio gisa».

Hasieran, idazle edo sortzaile moduan eman behar zuen hitzaldia. Ordea, hiru urtetik gora darabiz Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuorde lanean, eta aurrez Donostiako Tabakalera kultura garaikideko zentro gisa garatzeko prozesua bideratu zuen urte luzez; beraz, kultur ekipamenduen kudeaketa eta kultur politiken gobernantzaz ere bildua du eskarmentua. Haren ustez, kulturaren alorrean sarri jarrera «purista» azaleratzen dira ekonomiaz eta bestelako industriei jardutean. «Sortzaileon mundutik badago mespretxu ideologiko bat merkatuan sartzeko. Oso eskisito jartzen gara, eta probakazio tonuz esango dut oso espainolek ere jartzen gara; hau da, zaldunkeria zaharkitu hori ateratzen zaigu, diruaz ez dela hitz egin behar eta abar. Baina kultur esparruan diruaz ere hitz egin behar da; ez diruaz soilik, baina baita hartaz ere».

Kultur industria estrategiko

Kultura sorkuntza dabilenak sarri diskurtso ez-profesionala darabilena uste du Muñozek, eta hori aldatu beharra dagoela ere bai: «Kultur sorkuntzak ekonomia bat ere badakar berekin; galdetu behar diogu geure buruari ea kultur sorkuntzatik bizi nahi dugun. Baina sortzen duenak, ia ezinbestean, merkatu bati egin beharko dio aurre, eta hor prestatuak egotea komeni zaigu».



Joxean Muñoz, atzo, San Telmo Museoa, hitzaldia ematen. JAKIUNDE

Eusko Jaurlaritzako kargudun modura, kultur industriako eragile eta sortzaile, eta ekonomia industriaren artean komunikazio bideak zabaltzea eta eraikitzea egokitu zaio. Argi du oso litzate-

duen jendearengandik, diskurtso oso interesgarriak entzuten ari gara; adi daude, baina oraindik ez dakite irakurtzen kultur eta sorkuntza jendeak eta jarduerak zein balio transmiti ditzaketen. Baina,

bestalde, kultura munduko jendea ere oraindik askotan enrokatu egiten da, eta oso jarrera defentsiboak agertzen ditu».

Kultura industria eta sormen industria bereizi egiten ditu Muñozek: «Ondo legoke gaztelanizko *creator* eta *crea-*



Egungo kapitalismo finantzarioak darabilen dinamika eragotzi egiten du artisau jarduerari, eta ez sustatu»

Joxean Muñoz

Jaurlaritzako Kultura sailburuordea eta sortzailea

keela interesgarria kultur sorkuntzaren balioak eta artisautzarenak –«eta ez artisautza soilik eskulangintzarekin loturik, baizik eta esparru askotan»– ekonomia jardueretan txertatzea. Eta hor galdera, publikoan zegoen entzulearena, artearen eta unibertsitatearen esparruan dabilean: «Diskurtso hau nola ikusten dute beste aldean, industrian?». Eta Muñozen erantzuna, ohiko duen zubi langintzarako joerarekin: «Industriatik, eta lanbide profesionaleko hezkuntza

tibo horiek ondo bereizteko proposamenen bat izango bagenu euskaraz ere, nahasgarria izan baitaiteke». Lehena, zinemarekin, literaturarekin, arte eszenikoekin, dantzarekin, musikarekin lotzen du; bigarrena, modarekin, diseinuarekin, teknologia berriei. Biak ditu «garrantzizkotzat», baina kultur industria propio bat garatzea «hil edo bizikotzat» du, «jarduerari horien bidez geure narratibak osatzeko, geure istorioak geuk kontatzeko eta herri gisa aurrera egiteko».

Juan Sebastian Elkanoren zortzi agiri aurkitu dituzte

ONDAREA • Galdutzat ematen zizuten Juan Sebastian Elkanoren zortzi dokumentu aurkitu dituzte EAEko Historia Artxiboko adituek Aiako (Gipuzkoa) Laungain dorretxean. Horien artean dago Elkanok 1522an, munduari bira eman ostean, Espainiako errege-erreginei idatzitako gutuna.



Kwouk, Cato Fongen azalean. BERRIA

Burt Kwouk hil da, 'The Pink Panther' sagako aktorea

ZINEMA • Atzo hil zen Burt Kwouk aktore britainiarra, 85 urte zituela. *The Pink Panther*-en film sortan Clouseau inspektorearen Cato Fong zerbizariaren rola antzezten zuen, eta rol horrek eman zion sona berezia. Gainera, James Bonden filmetan eta hainbat telesailetan ere aritu zen.



«[‘Acantilado’ film berrian] Askatasun indibiduala eta talde bateko kide izatea nola uzta daitekeen hausnartu nahi izan dut»

Helena Taberna
Zinemagilea

Kepa Junkerak lan berria aurkeztuko du ekainean

MUSIKA • Kepa Junkera trikitilariak Maletak izeneko disko berria aurkeztuko du ekain hasieran. Galiziako, Kataluniako eta Espainiako hainbat tokitako kantariarekin osatu du, eta 17 abesti ditu.